

# Lur eta Ekai



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

**A**rtikuluaren lerro-burua hau-  
xe: *Euskaltzaindiak zakila arazo  
linguistikoa bilakatu zueneko.*

Axier Lopez kazetariak ARGIA n publikatutakoa. Horrela hasten zen: "Orain bi hilabete jaio zen Lur. Artean izen ofizialik ez bazuen ere, Lur izan da burua mundu honetara atera aurretik eta ondoren. Haurdunaldian ez genuen bere hanka-tartearen berri eduki nahi izan. Genitalen forma bigarren mailako kontua iruditzeaz gain, gure burua eta ingurua ez genituen aurrez baldintzatu nahi genero jakin bati dagokion kliseekin". Alegia, zakilarekin jaiotako haurrari erregistro zibilean Lur jartzeko bizitako *via crucis*a kontatu zuen.

Espainiako Erregistro Zibilaren legeari men eginez, Euskaltzaindiak 2001etik aurrera sexuaren arabera bereizketa finkatu du izenetan, eta izendegi hori kontsultatu egiten dute herrietako erregistro zibileko langileek gurasoek erabakitako izena arraroa iruditzen bazaie. Izendegian Iraitz mutil izena dela jartzen badu, gurasoei kostatuko zaie izen hori aluarekin jaiotako haurrari jartzea.

Euskaltzaindiak eztabaida politikoe-tan parte hartzen ez duela, legea bete baino egiten ez duela, arazo handia ez dela eta jende oso gutxi kexatu dela erantzun du orain arte. Badirudi egun kexatu den jendea ez dela hain gutxi, pasa den urtarilean Euskaltzaindiak Justizia Ministerioari euskal izendegia-ekin malguago joko dezala eskatuko dio eta, euskararen ezaugarri propioak kontuan izan ditzan.

Ekaireren heriotzaren berri izan ge-nuen duela bi aste. 16 urterekin bere buruaz beste egin zuen Ondarroako mutil transexuala. Chrysallis Elkartea-ren esanetan, nerabe batentzat gehie-gizko batailak borrokatu behar izan zituen Ekaik egunerokoan: Erregistroan izen-aldaketa lortzeko borroka, Guru-

Ekaireren heriotzaren  
berri izan genuen duela  
bi aste. 16 urterekin  
bere buruaz beste egin  
zuen Ondarroako mutil  
transexuala. Chrysallis  
Elkarteen esanetan,  
nerabe batentzat  
gehiegizko batailak  
borrokatu behar izan  
zituen Ekaik egunerokoan:  
Erregistroan izen-aldaketa  
lortzeko borroka...

ztetako "genero unitatean" inoiz heldu ez zen behar zuen hormona-tratamen-dua jasotzeko borroka, institutuan

bere errealitatea ulertu eta ondorioz errespetatzeko egin ez zen formakun-tza-saioa ematea lortzeko borroka...

Aurreko astean hain zuzen ere, Chrysallis Elkartek Legebiltzarrean transexualen legea egokitzea eskatu zuen, patologizatzearekin bukatzeko. Hormonak lortzeko prozesua motela da, besteak beste nerabeek zein hel-duek genero disforia diagnosis jaso behar dutelako lehenago. Hezkuntza sisteman transexualitateari arreta ego-kia emateko protokoloak garatzea ere eskatu dute. Ekaireren bizitza goibeldu zuten borroketariko bi. Hirugarrena, izena aldatzeko trabak.

Hori dela eta, izendegiaren kontuaz akordatu naiz. Kontua ez da soilik euskararen ezaugarri propioak ditue-la onartzea (Lur edo Hodei bezalako izenen tradizio mistoa), baizik eta Espainiako Erregistro Zibilaren legea bera transfobikoa dela ulertzea. Legeak debekatzen dituen izenen artean, "*los que hagan confusa la identificación y los que induzcan en su conjunto a error en cuanto al sexo*" aipatzen ditu. Gizar-te binarista honek pertsonen sexua identifikatzeko zailtasuna mehatxu bezala ikusten du. Sexu anbiguotasunak arriskutsua dirudi, bake sozialerako atentatu bat.

"Dualismoaren tirania birpentsatu beharko genuke. Nik aniztasunaren pedagogiaz hitz egin izan dut", esan du Dau García Dauder ikerlariak ARGIA n publikatutako elkarrizketa eder ba-tetan. Ekaireren omenez antolatutako elkarretaratzeen leloa; "Ez da suizidioa izan, eraiketa baizik" izan da, trans-fobia izan baita Ekairi bizitzeko grina kendu diona.

Axier Lopezen azalpenak dualismoa-ren tirania auzian jartzeko nahia adie-razten zuen, baina transfobia instituzio-nalaren horma gogorrarekin topo egin zuen. Ekai erail zuen horma bera. ■